

Startinnova I - Balorezko proposamena

Bezeroek gure enpresa, produktu edo zerbitzua aukeratzearen arrazoia da, eta lehiakideengandik bereizten gaituena.

Gaur egun, kafetegi gehienek oso produktu onak eskaintzen dituzte, baina gutxiak dute kontzentratzeko lekua. Gure kafetegian, bezero batek behar duen guztia eskaintzen dugu, erlaxatzeko leku batekin eta produktu onenekin, kalitate oneneko edariekin eta gozogintzarekin.

Bezeroen beharrak ase ditzakegu; hau da, kafe on bat nahi dutenean, gure kafetegira etorrira ase ahal izango dituzte beren nahiak. Gure kafea Kolonbiatik dator, luraren behar guztiak errespetatuz landatzen da. Era berean, gure bezeroek kontzentrazio-espazio bat behar dutenean, zentratzeko leku egokia aurkituko dute gure instalazioetan. Gainera, prezioak oso eskuragarriak dira era guztietako pertsonentzat, eta eskaintza ezberdinak ditugu; halaber, 30 kontsumizioko, fruitu gorrien flan bat oparituko da, gure espezialitatea dena. Sukaldariaren errezeta tradizionala da, belaunaldiz belaunaldi haien familian igaro izan dena.



Gure enpresak aurrera egitearen alde egiten du, eta alde batera uzten du atzean gelditzeari; horregatik, gure produktuak aurrera doaz gizartea aldatzen den aldi berean. Gaur egun, askotariko produktuak eskaintzen ditugu; horien artean, elikagai beganoak; adibidez, edari begetalak (almendrazkoa, arrozazkoa eta sojazkoa, besteak beste), garbantzu irina, txia haziak edo agave ziropa.



Sostenibilitatea ere babesten dugu. Birziklatzeko politika dugu; hau da, beste ekoizpen-fase batzuetan erabili diren zenbait produktu berrerabiltzen ditugu: plastikoak, papera eta poliespana biltegietara itzultzen dira, besteak beste, gure edalontziak egiteko. Gainera, dohaintzak egiten ditugu sostenibilitateari buruzko kausak babesteko, denboraldi bakoitzeko irabazien %3, hain zuzen ere.


Horrez gain, ingurumenarekiko erantzukizuna oso kontuan hartzen dugu; baina erantzukizun soziala ere ez dugu alde batera uzten, elkartasunezko jarduerak antolatzen baititugu lortutako bilketarekin. Komunitatearentzako proiektuen bat

finantzatzeko eta GKEei dohaintzan emateko, hala nola behartsuenei janaria banatzeko.

Era berean, gainerako zerbitzuetatik bereizten gaituena beti harago joan nahi dugula da. Kalitatezko produktuak eta leku atsegina eskaintzeaz gain, astero gai ezberdin bati buruz eztabaidatzeko gune bat prestatzen dugu, astean hainbat egunetan edozein generotako irakurketa klubak antolatzeaz gain. Teknologiaren bilakaeraz, zentsuraz eta klima aldaketaz arituko dira eztabaideetan. Bertan, bezeroek askatasunez adierazi eta partekatu ahal izango dituzte beren ideiak eta pentsamoldeak.

Aipatu beharra dago, Euskal Herriko kooperatiba eta enpresa txikienekin konpromisua daukagula, produktu guztiak haiei erosten dizkiegu, aldi berean km0-a ere errespetatuz..

Gure enpresa herrialdeko puntu batean irekitzen hasiko gara, eta hazten goazen heinean, zerbitzuak hiri gehiagotara zabalduko ditugu; hasteko, Gasteizeko



Florida kalean irekiko dugu negozioa. Ordutegia goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara izango da, eta asteko egun guztietan irekiko dugu. Gure negozioaren tamaina ez da ez oso handia, ez oso txikia, baina bai abegitsua izateko adinakoa.

Azkenik esan, kafetegiaren zerbitzua oso garrantzitsua dela; izan ere, Gasteiz eta inguruak gune turistikoak dira, eta horrek tabernaren diru-sarreraren onurak izan ditzake. Jende askok bisitatuko duenez eta batez ere gazteek, kafetegiak diseinu eroso izango du, koadro moderno eta minimalistekin, giro beroa eta atsegina emanaz, gure bezeroei kalitatezko zerbitzu ona eskaintzeaz gain.